

Or piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 72. alea 2003ko ekainaren 27a

Ludotekaren azerkipean
jolasaren mundua





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Kiru Muntaiak

Amillaga 5, 20570 Bergara / Telefonoa 943 75 13 12 - 615 70 27 65

“Etxebizitzen ekipamentu osoak egiten dittugu: sukalde, enpotratu, bainu, tarima flotanteak...”

Noiz eta zeintzuk sortu zenduten Kiru Muntaiak?
Orain dala hamabi urte zabaldu ginuan. Garai hartan Blasek bakarrik zeraman enpresia.



Zenbatek eitten dozue bertan lan?
Momentu honetan lau pertsonak: Gorka Salaberria, Jon Mendizabal, Roberto Lopez eta Blas Elizburuk.

Zeintzuk dira eskeinitako zerbitzuak?
Etxebizitzen ekipamentu osoak eitten dittugu: sukalde, enpotratu, tarima flotanteak, bainuak, lurrak... Instalazio eta salmenta zerbitzuak eskeintzen dittugu.



Bezeroak nunguak dittuzue?

Deba bailarakuak gehienak, partikularrak eta baita profesionalak be.

Etorkizunera begira asmo edo proiektu berririk ba al daukazue?


Oin dala hiru hile lantokiz aldatu ginuan Plaentxiatik Bergara joanez. Oin, buru- belarri gabiz etorkizunian bezeroentzat zabalduko dogun estudixuaren diseinuaren proiektuan.

Nolatan erabaki zinuaten Bergara jutia?

Plaentxian ez genduan Udaletxian aldetik enpresa berri bati tokia eitteko erraztasunik jaso.

Bukatzeo, zeintzuk dia lan honetako alde txar eta onenak?

Txarrena, material pisutsuak kargatu biharra eta onena berriz, eskuekin gauzak sortzeko gaitasuna lantzen dozula.



Berria berri. Gurean zaharrak berri.

UNAI LARREATEGI

Kalean da Berria. Egunkaria itxi ziguten baina kalean da Berria.

Egia esan jendeari gutxiegi sufrierazi zaionaren ustekoa naiz, errezegi irten dela kalera esan nahi dut, hau da Plaentxiar gutxiren poltsikoak nozitu duela egunkari berriaren kaleratzea. Galdera hau egiten zuen aurrekoan batek: egunkari hau Errealak liga irabaztea baino askoz garrantzitsua goa da, baina nola espikatu geure buruari Errealeko sozio berri gehiago egin dela Egunkariko akziodun baino? (espikaziorik badaukazu ez jarraitu idatzi hau irakurtzen arren).

Hamaika oinarri, hamaika oinarri dira proiektu berria zaharraren lepotik joango denaren berme. Ia akordatzen naizen, euskaltzalea, nazionala, baterakoa, zabala... ideia askotxo ezta? gehiegi beharbada egunero DV erosten duen euskaldunarentzat? konplikatuegia herriko kronika, eskelak eta erreala atala irakurtzearen urtean 500 euro gastatzen dituen batentzat?

Galdera txiki bat, ba al dakizue "espainiar" estatuko probintzietatik zeinetan saltzen den proportzioan "Hola" gehien? Gipuzkoan irakurle maite, Gipuzkoan. Datu horiek esku artean, seguru al gaude jendea euskarazko produktuak irakurtzera bultzatzeko bidea kalitatearena dela? Kalitate hitzak nik dakidala behintzat ez du bermatzen jendearen beharra asetua denik.

Orduan galdera da, kalitatezko produktuaz gain, goian aipaturiko notiziak bilatzen dituen jendearentzat ez al da proiekturik garatu behar? Inork pentsatuko zuen honezgero, txutxumutxuen aldizkari euskaldun bat ateratzea beharrezkotzat ikusten dudala edo eskelaz beteriko eguneroko bat negozio ona izango litzatekeenaren ustekoa naizela. Ba... ez! ez dut hortik joan nahi, zintzilik gelditu dan herriko kronikaren inguruan bi hitz esan nahiko nituzke.

Ez zait batere ondo iruditzen herritarrek goizero-goizero dirua ordaindu behar izatea, herriko berri jaso "nahi" izatearren eta gainera gaztelaraz. Herriko aldizkari honek ere ahaleginak egiten ditu herritarrei zerbitzu hori emateko baina dirudie-nez hankamotz gelditzen da, nabaria baita herritarrak denboraz gertuagoko produktu bat eduki nahi duela eskura.

Honen aurrean zer egin behar dugu? Pil-Pileanen zai gelditu etxean? Edo udal-letxeak bere aldizkaria noiz bidaliko esperoan egon? Ez, ez, herri honi zor zaio komunikabide-azpiegitura egoki bat. Anitaza, askotarikoa, plurala, onena! baina denaren gainetik herritarra eta dinamikoa. Egunero-egunero buzoian, ordenagailuan, irrastian edo telebistan aurkituko duguna.

Harria botata gelditzen da beraz, hartu nahi duenak har dezala eta bota berriro bueltan, gustora jasoa izango da eta!!!

Telegrapak

Kaixo. **Stop.** Musika eskola eta absbatzari 10. **Stop.** aspaldiko ekitaldirik arrakastatsuenak egitiarren. **Stop.** abesbatzakuak mereziko dabe Parisera bidaitxo bat. **Stop.** eh Soraluze!. **Stop.** guk zela eztagigun kantuan. **Stop.** dantzan egitten dogu suan inguruan. **Stop.** eta jangoikua hasarretu gure sorginkerixekin. **Stop.** eta armarioan dagan jentia zer?. **Stop.** danok kanpora!. **Stop.** egiten daben beruakin eta armario barruan?. **Stop.** gora gay eta lesbiana izateko eskubidea!. **Stop.** ze zerbait baldin bada, bada. **Stop.** bada bazterketa gutziago eta sexu gehiago!. **Stop.** eta kitto!. **Stop.** guazen aurrera. **Stop.** zer gertatzen da txapotiarekin?. **Stop.** gaur bai, bihar ez! . **Stop.** eruan esnia galletak jateko!. **Stop.** RK Zulo-n sartu beharko gaitun/k. **Stop.** bainujantzirik gabe zapapurrutxinen artean igeri egitera.

S t o p .
Aupa Erreala eta subrealismoa!. **Stop.** azkenean aterratu dogu. **Stop.** Madridek irabazi. **Stop.** eta Errealak bebai. **Stop.** honek politika dirudi. **Stop.** Madridekuak behintzat bai!. **Stop.** jo, je, ji!. **Stop.** kar, kar, kar!. **Stop.** geizki dago besteen desgraziekin poztia baina.... **Stop.** beti geurien inguruan berba egitia be... **Stop.** ALA MADRID!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefona 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Gurutze Ariznabarreta, Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arienne Unamuno.

Publizitatea: Ane Yabar (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo (943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskaraz bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Zorion agurrak



Leo Zarobe
Ekainaren 29
12 urte
Zorionak ligoari!
Iratxo goxodenda-
ko eta Pil-pileane-
koen partez.
Txintxo ibili.



**Mireia
Lamariano**
Ekainaren 21
12 urte
Zorionak eta
jarraitu orain
bezain alai izaten.
Etxekuen partez.

Ajenda eta oharrak

AKATS AITORPENA

Aurreko aleetan Gila Tabernaren iragarkiarekin izan ditugun akatsak direla-eta, Pil-pilean gidatzariak barkamena eskatu nahi dio Ana Losada Gilako arduradunari. Aldi berean herritarrei jakinarazi nahi die, gure akatsez hala agertu ez bada ere, Gila tabernak aurtan ere urte osoko publizitate eskeintza hartu duela. **Pil-pilean**

jaiotakoak

Hugo Nuñez Leonardo
Garazi Aizpurua Orbea
Erika Rivero Soba

Merkatu Txikia



LAN ESKAINTZAK

***Ogia eta masa izoztuak banatu eta merkataria lanak egiteko** pertsona bat behar da 943-76-13-77

***Zerbitzaria behar da** asteburuetan lan egiteko 652708246

***Publizitate kudeatzailea** behar du aldi baterako lan egiteko. Baldintzak: euskaraz ondo jakitea, gidabaimena edukitzea eta Debagoiena ezagutzea. Esperientzia izatea kontuan hartuko da. Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara: Nafarroa etorbidea 2 20500 Arrasate edo posta elektronikoz admi@goiena.com

***Ileapaindegian lan egiteko** pertsona behar da. 943744388



LANGAI

***Garbiketarako langilea behar du** Debabarreneko aldi baterako enpresak . Erref. 103920/2

***Erizaina behar du** Donostialdeko enpresak .Erref.104614/1

***Gestorea behar du** Eibarko enpresak kontu Erref. 104201/3

***Bidai agentea behar du** Eibarko enpresak . Erref. 103816/3

Ondorengo lanpostuetan hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu: 901222901 telefonora deitu. (LANGAI)



BESTELAKOAK

***Ford fiesta salgai.** Egoera onean 943-20-34-57

***Trikitrixa salgai.** Polverini txiki, 3-4 ahotdryslps 676157457

***Karabana salgai.** Katusa 3750-943-74-21-64

Gutunak

Udala aldizkariaren eztabaidaren inguruan 1999. urtean egindako hauteskundeak "Demokratikoak" izatea, ez du nahi izan inolaz ere Udala Aldizkaria demokratikoa denik. Akaso Estatu Espainiarrak onartutako Alderdien Legea demokratikoa da? Ezker Abertzaleak aldizkaria argitaratzeko proposamenarekin ados egon arren, lehendabizi datuak aportatu, batzordeetan tratatu eta guztion artean erabakiak hartu behar zirela eskatu zuen; hau da, erabili beharreko hizkuntza irizpideak, aurrekontuaren zenbatekoa, herritarren partehartzea, etabar...

Udal Aldizkaria profesionaltasunez egin direla esaten duzue, baina profesionaltasuna al da talde bereko 2 politikoa soilik (Alkatea eta Kultura arloko ardura-duna) erabakitzea aldizkariaren edukia? Herritarrekin eta beste talde politikoekin kontatu gabe?

Beste talde politikoen iritzia soilik lehenengo aldizkarian hartu zen, neurri bate-

an, kontutan, eta besteetan?

Herritarrek informazio zuzena izateko, aurrera eraman diren gaiak argitaratu behar dira, noski, baina esaten duzuen bezala, ezkutatzeko ezer ez badaukazue, zergaitik ez dira argitaratzen beste taldeen proposamenak, egin ez diren gauzak, herritarrek azaldutako kexak? Herritarrek ez dute eskubiderik dena jakiteko?

Ez da lehenengo aldiz, Ezker Abertzaleak Udala aldizkaria propaganda kutsua duela salatzen duenik. Bi aldizkari egin behar ziren artean, baina ez dira denak egin, gainera argitaratu diren 5 aldizkaritik 2 hauteskundeak gertu zirela kaleratu dira, ez al da izan hau propaganda hutsa?

Azkenik, herritarrek Udala aldizkariaren inguruan duten iritzia ezin da maltzurkeria eta gezurra bezala tratatu. Falta zana, iritziak ere ilegalizatzea!

Ezker Abertzaleko zinegotzi ohiak

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KDL

HORTZ
KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOEA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

VIDAL
frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055

ARMENDIA
JATETXEA



Sukaldaritza tradizionala

Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02



EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tfnoa: 943 75 13 20

Zer irizten dotsazu?

Badira hilabete batzuk Galizian Prestige untzia hondoratu eta kostaldea txapapotez belztu zela. Hala ere, Ipar haizeak jotzen duen bakoitzean Gipuzkoa eta Bizkaiko hondartzak txapapotezko "galletaz" betetzen dira. Uda heldu da eta beroak hondartzetara bultzatzen du jendea.

Izan zara hondartzan? zela bilatu dittuzu? itxi egin bihar lirakela uste dozu?



Markel Barrutia
8 urte
Ikaslia
Ondio ez naiz hondartzara juan eta zikinak jarraitzen badabe ez naiz juango eta uste dot jende asko ez dala juango petrolixua dagualako.



Eider Varela
20 urte
Ikaslia
Nahiz eta lehen bistara, haretan askorik ez daguala emon, hankapiak begiratutakuan konturatzen zara asko daguala. Aurtengo udan zingirak arrakasta gehixao izango dutela uste dot.



Mila Moro
42 urte
Dendarixa
Izan naiz hondartzan eta zikinak dare. Horrek nere ustez atzera eraingo dosta piska bat berriz juateko, gogua kentzen dau. Nere ustetan plaiak zikinak daren bittartian itxi ein biharko lirake.



Jesus Hernando
59 urte
Torlojugintza langilia
Jentia diño ezin dala juan eta itxi egingo dirala. Nik ez dot ikusi. Nigan horrek ez dauka eraginik. Ni Debara eta Donostiara jua-ten naiz. Horra be heldu ei da baina lagatzen badabe, ni aurtan be juango naiz.



Ixone Iñarra
12 urte
Ikaslia
Ni ez naiz egon ondio. Bero asko egitten baldin badau juango naiz baina bestela, zikina badao ez. Aurtan ez dakit juango naizen, dagan txapapote kantitaian arabera baina ez dot uste hondartzak itxia zuzenena izango litzakenik.



Antxon Alberdi
18 urte
Ikaslia
Ni egon naiz plaietan egun batzutan, eta nabari da txapapotez zikinduta daguala, haretan batez be. Hala eta be, uste dot plaiak zabalik lagatzeko moduan darella eta pertsona bakoitzak ikusiko dau juan edo ez.



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

berria



Ekainaren 21 etik kalean da euskarazko egunkari berria. Soraluzen beste herri askotan bezela oso harrera beroa izan du BERRIAk. Diru bilketa eta akzioen salmentari dagokionez, gero eta herritar gehiago dei egiten dute Pil-pileanera akzio eske. Dagoeneko 5.500 euro batu dira eta beste 6.500 euro falta dira 12.000 euroko helburua betetzeko. Datozen asteotan enpresa, langile, kuadrila eta elkarteengana joko da oraindik saltzeko dauden akzioak eskeintzera. Bejondeigula!



Herri Batzordea astelehenean bildu zen alderdi politiko eta sindikatuetakordezkariekin. Guztiek hartu zuten konpromisoa diru bilketan parte hartzeko eta Berriaren alde.



Ikastetxeko 28 irakaslek Berria egunkariaren aldeko 300 euroko akzioa erosi dute. Gainera ikastetxea Berria egunkariaren harpidedun izango da.



Gaztelupeko Hotsak Disketxeak 300 euroko 5 akzio erosi ditu. Ahalegin handia eginez, euskarazko egunkari berriaren alde egin nahi izan dute. Harpidedunak dira.



Erosle Kooperatibako Bazkideek Berria finantzatzeko 300 euroko akzio bat erosi berri dute. Urteko bazkide-batzarrean aurkeztu eta aho batez onartua izan da.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE


LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g ff: 943752150
138 Postakutxa Faxe: 943752118

SORALUZE

Medikurik ez larunbatetan

Herriko anbulategiak jakinarazi duenez, hil honetatik aurrera, larunbat goizetan Soraluzeko anbulategian ez da mediku zerbitzurik eskeiniko. Mediku

zerbitzua jaso nahi dutenek Elgoibarko anbulategira jo beharko dute Mendarokoek bezela. Biztanle kopuruarekiko ezarritako aldaketa dela jakinarazi dute.

Sudupe alkate aldeko 7 boturekin

Joan zen ekainaren 14an Udaletxean egin zen Udalaren eratzte batzarrean Alberto Sudupek lortu zuen alkate

izendapena, EA, EAJ ko eta aldeko beste botu batekin. Datozen egunetan batzordeak osatuko dira.

San Andresko lokal berria ia prest

San Andres elkarteko auzotarrek dagoeneko amaitu dituzte, elkartearen ondoan lokal soziala eraikitzeko lanak. Debemen eta Soraluzeko Udalaren dirulaguntzarekin erosi dute materiala eta eskulana eurak jarri dute. Eraikinaren alde bat elkartearendako izango da (Komunak eta erretegia) eta beste erdia publikoa izango da (komunak eta lokala)



H.H.I.ko eskulanak ikusgai



Joan zen egunetan H.H.I.ko eskulan taldeko ikasleek, eurak egindako eskula-

nak izan dituzte erakusgai Baltegiatako lokalean. Zein baino zein ikusgarriago.

Itoizko urtegiaren kontrako manifestazioarako autobusa

Domeka honetan egingo da Iruñian Itoizko urtegia egiteko lanen aurkako manifestazioa. Bergara, Elgoibar eta Eibarko Gaztetxeekin batera Soraluzeko Gaztetxeak autobusa jarriko du. Manifestazioa 12:00etan izango da eta autobusa 9:30etan.

Udako zinea ostiraletan

Datozen lau ostiraletan zehar, Udaleko Kultura Sailak antolatuta "Zinea Udan" programaren barruan lau filma eskeiniko dira Plaza Zaharrean gaueko 22:30etan. Lehenengoa ostiral honetan eskeiniko da, "Amor Ciego". Hurrengo ostiraletan, "La edad de hielo", "Amor con preaviso" eta "Viaje de Carol" filmak eskeiniko dira.

KZ-Guneko eta liburtegiako ordutegi berria

Kzgunea ordutegia aldatuko du datorren astelehenetik aurrera. Datorren hilean (uztailean) goizeko 8etan zabalduko ditu ateak 12ak arte.

20 orduko Internet Kzgunea kurtsoa hasiko da lehenengo astean 10etatik 12etara eta Nagusiweb izeneko bi kurtso ere bai pertsona nagusientzat. Bestalde kurtso laburrak 2 ordu edo ordubeteak gai teknikoak jorratzeko.

Udal Liburutegiak ere bere ohiko ordutegia aldatuko du. Ordutegi berria ekainaren 23tik irailaren 6ra bitartean izango da indarrean. Astelehenetan 18:00etatik 21:00etara eta asteartetik ostiralela goizeko 9:30etatik 12:30etara bitartean zabalduko da.

Belarrak

Loradenda eta belardenda

Erosketak etxera eramango dizkizugu

Telf. 943 75 30 11

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)

Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Ludotekaren aterkipean jolasean

1.988. urtean Udalak zabaldu zuenetik hona, Soraluzeo haur eta gaztetxoek jolas eta dibertsiozko munduaren aterpe izan da Ludoteka. Jone Ariznabarreta eta Rosa Uribelarrea dira, arratsaldero arratsaldero, 16:00etatik 20:00etara bitartean, gaztetxoei fantasia eta jolasezko mundurako aterkia irekitzen dietenak. Urteetako esperientziak eta benetako bokazioak ematen duen jakinduria eta maitasuna aurkitu dugu Jone eta Rosarengan. Gaztetxoek maite dituzten beste maite dituzte eurak gaztetxoak. Ludotekaren eguneroko jardunaren eta gaurko gaztetxoek nondik norakoez gain, aurtengo Udarako antolatutako dituzten kanpoko ekimen inguruan ere berba egin dugu.

P: Zer egiten dabe gaztetxoak ludotekan?

R: Alde batetik, mahai jolasetan jarduten dabe. Jolas libriak be egiten dituzte; antzerkitxuak, marrazkixak, mozorroak, dantzak, musikia... Hilian behin tailarrak egiten dittugu; kareta, hormako esegitzekuak... Urtian zihar, aratustietako jaixak, udaleku irekixak eta gabonetako tailarrak egiten dittugu.

J: Frantzia aldetik etorri zan booma da. 80. Hamarkadan herri askotan jarri ziran Ludotekak. Herri batzuetan publikua da hemengo moduan eta beste batzuetan ikastetxien artian banatzen da. Beste herri batzuetan ointxe hasi dira jartzen. Soraluze oso goiz jarri zan eta oso ondo funtzionatzen daben zerbitzu bat dala frogatu da urteekin.

P: Ze aurrekontu izaten dozue urtitan?

R: 2.003. Urterako 2.855€ko aurrekontua daukagu.

J: Zorionez Udalak autonomia osua emoten dosku oin eta behin aurrekontuak onartu eta gero, diru hori guk kudeatzen dogu. Udalaren barruan autonomia izanda, askoz eraginkorraguak gara.

P: Zelako lana da Ludotekakua?

R: Umiak gustau ezkerero oso politta da. Jakin bihar dana da euren adinera jeisten, beti be jakinda zein zaran eta jakinda errespetau bihar zaittuela. Askotan ume batzuekin gozatu egiten dozu, harritu egiten zaitturalako denbora guztian. Elkarradarra jotzen hasi eta izugarritzko erantzun polittack botatzen dotsuzenian.

Jolasian erakustiaz gain, jolasak jasotzen, elkar errespetatzen, sartzetarakuan "arratsalde on" esaten eta gauzak "mese-dez" eskatzen erakusten dotsegu.

"Ume batzuekin gozatu egiten dozu, harritu egiten zaitturala denbora guztian"

P: Zenbat ume etortzen da Ludotekara?

R: Ehunetik gora etortzen dira. Lau urtetatik hamalau urte bete arte etortzen

dira.

J: Hamalau urte arte etorri leikez baina batzuk gerora be etorri egiten dira. Oindala gutxi etorri dira 4 mutil 18 urtetik gorak. Jokua hartu eta ondoko gelara jua ziran eta ixil-ixilik pasau zittuen orduak. Batzuekin gerora be harremana gordetzen da. Polittena izaten da lehenago hemen izan dittugunak kalia ikusi eta eurak konfidantza osoz berba egittia. Euredako garrantzitsua izan zarala esatia nahi dau horrek.

P: Gaztiendako eskeintza asko



Jone eta Rosa k arratsaldero hartzen dituzte herriko gaztetxoak Ludotekan.

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

dago. Igarri dozue Ludotekan?

J: Ez. Hona gozatzeraz etortzen dira eta gauza askotan izena emonda egon arren, beti hartzen dabe denporia etortzeko. Eurak eskatzen dabe egun bat edo bi hona etortzeko. Biharra dauke jolasteko. Danerakuak dare, batzuk gauza askotan eta beste batzuk ezetan bez. Oin badare batzuk, dauken adinak eta denborarik ez daukela esaten dabenak.

P: Zein joku dira umieri gehixen gustatzen jakuezenak?

R: Txikitxueneri imitaziño jolasak asko gustatzen jakue; antzerkixak, mozorruak... Mahai jolasak bebai; dominua, puzzliak, eraikitzeak... eurak bizi egiten dabe eta guk bebai eurekin batera.

J: Nagusitxuaueri, elkarren kontra jokatzeak gustatzen jakue, batez be gure kontra, malizia hartu eta lagunuen kontra jokatze; Hotel, Risk... Joku barrixak bebai, Macgregortarren Mamua... Denboraldixak eukitzen dittue, modak. Batzuetan larregi biziitzen dira joku batekin eta ezkutau egin bihar izaten dittugu. Beste batzuekin segituan aspertzen dira. Beste joku batzuk zailegixak izaten dira.

P: Ordenadore batek lekua izango leuke ludotekan?

R: Ez. Batzuetan ekartzen dittue makinitak-eta baina gehixao izaten da laguneri inbirixia emoteko beste ezertarako baino. Hemengo jokuekin ase egitten dira eta segituan lagatzen dittue baztar baten holako gauzak.

J: Bakarrik egitteko gauzeekin asperu egitten dira eta hona etortzen dira lagunartian egotera. Badakixe hemen beti daguala batenbat.

P: Igarri dozue aldaketarik lengo umietatik oinguetara?

R: Bai. Oingo umiak lotsagabiaguak dira. Nik esango neuke lengueri baino gehixago ametitzen jakuela.

J: Lenguekin igual harreman estua-



Batzuk era batera, beste batzuk bestera, denek aurkitzen dute gustoko jolasen bat.

“Gauza askotan izena emonda egon arren, beti hartzen dabe denboria hona etortzeko”

gua genkan. Etxian moduan egoten ziran eta kuadrilak be egin dira hemen goiko eskolako eta ikastolako ikaslien artian. Oin hamalau urte ingurukin etortziari lagatzen dotse, hau umiendako dala uste dabelako edo.

P: Euskara aldetik zer? Gehixao egitten dabe len baino?

R: Txikittan euskeraz egitten dabaina adinian aurrera egin ahala batzuk gaztelerara pasatzen dira.

J: Oin danak dakixe euskeraz eta bertakua gainera. Kanpotik datozenak be ikasi egitten dabe. Guraso gaztiak be euskeraz egitten dotse. Horretan asko aurreratu da.

P: Kiroldexixa eraberritzen dihar- du Udalak. Ze behar dauzka Ludote-

kiak?

R: Oindio ez dakigu noiz hasiko dan hurrengo fasia. Dana dala fitxatzeko makina bat eta telefono baten biharra daukagu.

J: Kiroldexiko lanak berriz hasten diranian komeniko litzake liburutegixan eta ludotekan berogailu sistema bat ipintzia eta udarako zeozer pentsatzia. Ze neguan hotzak kuxkurtuta eta udan beruak ittota ibiltzen gara.

P: Gainontzian gaztieri dagokixonez ze hutsune ikusten dozue herrixan?

R-J: Gauza asko egin leizke baina badare hutsune nabarmen batzuk; zinia, gazte txokua eta kultur etxia esaterako.

P: Mezuren bat herriko neska multuendako?

R-J: Udarako udaleku irekixen programaziñua prestatzen dihardugu, 30etik 11ra, asteartetik ostiralera 10etik 12:30etara.. Etorri zaittezte bildurrik barik, oso ondo pasauko dozue eta!

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Sorlatze

Telefonia 75 24 09

ARRANO tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Loiola Altuna kirol kazetaria

“Juan zan urtian esaten genduan nun zeren eta aurten nun garen”

Txikitan bere izeba Emilitaren Plaza Zaharreko kioskoko egunkari artean eta domeka arratsaldero telebistaren aurrean Matias Praten futbol kontaktuzunak jarraitzen emandako orduak, bokaziozko kiroleko kazetari izatera eraman dute Loiola Altuna plaentxiarra. Dagoeneko hamairu urte daramatza telebistan (ETBn) lanean. Beti lan egin du “kirolean” eta azken urteotan futboleko berri ematen dihardu. Aurten Errealaren jarraipena egitea egokitu zaio (“zorionez”) eta intentsitate handiz bizi izan du bere bihotzeko taldeak ezin biribildu izan duen denboraldi bikaina. Azken asteotan, batean eta bestean, euskeraz nahiz erderaz ikusi dugu mikrofonoa eskutan hartuta, errealeko zaletu, jokalarari eta arduradunei adierazpenik mamitsuenak ateratzeko ahalagin bizian. Orain liga amaitu eta “hamalau orduko lan egunak” amaitu zaizkionean, geuk jo dugu beregan adierazpen mamitsuen eske.



Loiola Oartzungo Madalensoro pilotalekuaren atzean Nihat-en kamiseta rekin.

“Jokalarixak esaten juek beti galdera berdinak egiten ditudugula”

eta oraindik ez diagu bat harrapatu!”. Hori eguardixan izan zan eta tipo berdina ikusi najuan arratsaldeko bostetan. Eta tipua erdi mozkortuta eta larri larri “jode, nere neska lagunak deitu zidak, Teleberrian ikusi nauela eta ia zer esaten ari naizen...”. Ikusgarrixena domeka gabekua izan zuan Donostian, inok ez jua uste autobusaren aurrian horrenbeste jente izango zanik.

Zelakua dok kazetari lana futbol munduan?

Oindala urte batzuk baino askoz be zailagua dok jokalarixekin harreman es-tua izatia. Oin edozeinekin berba egitteko hor jaok taldeko prentsa arduraduna, sarritan harremanak erreztu biharrian zaildu egiten dituduana. Zelai mailan, Anoeta dok estatuan onduen lan egiten dan zelaxetako bat. Ikusteko edarrena San Mames dok baina lanerako nazkagarrixena.

Esaten juek futboleko adierazpenak beti berdina diñuela.

Kazetarixak esaten jua jokalarixak beti gauza berdinak esaten dituduela eta jokalarixak esaten juek kazetarixok beti galdera berak egiten ditudugula. Askotan, taldiaren egoeria txarra danian badare galdera batzuk baina galderia dok, galdera horrek egin ezker erantzungo

littukie? Gainera, batzuetan galdera konplikatua egiten dituduenian kriston sorpresak hartzen dituduk. Guk lau esaldi bihar jituau.

Zeintzuk dituduk adierazpenik onenak egiten dituduztenak?

Badauaz jokalarari batzuk, Nihat esaterako, telebistarako monstruo batzuk diranak. Igual esango jok beste batzuk esaten dabena baina zela esaten dabena eta daukan aurpegiko espresioa. Karpin be oso apasionatua dok, Aranburuk oso irteera onak izaten jittuk, Jauregiren euskera. Eta oso serixua emoten dabena Xabi Alonso bat, ba jode, diputaziñoko balkoian egin jittuan adierazpenak denboraldiko onenak izango zituduaz.

Euskeraz lan egittia oso zaila dok?

Ba Realean euskera aldetik ez jaok arazo haundirik. Jokalarixen aldetik Realian badauaz 7-8 jokalarari euskeraz dalkixenak eta gainera titular izaten diranak. Presidentiak be euskeraz jakik, Anoetako megafonia euskeraz dok, imnua...Nik uste Reala talde euskalduna dala, euskaldunena.

Datorren urterako ze aurrikuspen?

Jentiak jakin bihar jok Realak Champion Leage jokatura partidu gehixao izango dabela eta Europara sartzia ez legoke geizki. Hori litzakek helburu logikua. gehixao lortzen badabe askoz hobe! Gu gustora lanian.

Kazetari moduan zela bizi izan dituduk egun honek?

Kriston ostixan. Izan dok denboraldi osua baina azken bi astiak izan dituduk Errealak benetan titulua eskuratzeko aukera izan dabena. Esaterako Vigon, goizeko hamar t'erdietan kamariakin geldittu eta gabeko hamabit'erdia arte. Baina gustora egitten dok, “mekauen dios” batzuk bota arren. Vigon enano baten moduan pasatu najuan. Txarragua izaten dok talde bat geizki daganian lan egittia.

Zein izan dok Errealan sekretua?

Ba lehenengo eta behin aurrendenboraldi serixo eta oso gogor bat egittia. Aurrian 40 gol egitten dituduzten bi aurrelari izatia; Nihat eta Kovasevich, horrek konfidantza haundixa emoten juek. Denuex-ek Nihat aurrian jarri jok eta hori aurkikuntza bat izan dok danondako. Lehenengo partiduetan irabazten hasten haiz eta poliki poliki len beltz ikusten ebana txuri-urdin ikusten hasten haiz. Juan zan urtian esaten genduan nun zeren eta aurten nun garen.

Egunotako xelebrekeriren bat?

Bai. Vigon itxuraz ostrak oso onak dituduk klabua kentzeko eta ni galdetzen hasi nintzuan ia ostrarik jan zebe. Eta tipo batek esan jostan “bai almejak bebai baina hemen egon gaituk gau osoan

Musika eskola eta abesbatzaren kontzertu arrakastatsuak



Joan zen ostiralean eta larunbatean hurrenez hurren, Musika Eskolaren eta Abesbatzaren kontzertuak izan ziren Plaza Zaharrean. Azpiegitura egokiak eta eguraldi onak lagunduta izugarritzko

jende pila batu zen bi emanaldietara. Musikari eta kantariak maila ona erakutsi zuten eta emanaldi bikainak suertatutu ziren bai bata eta bai bestea ere. Errepikatzen modukoak biak.

Danborradan izena emateko epea zabalik dago

Duela aste batzuk osatu zen danborradako antolatzaile berriek ekin diote dagoeneko aurtengo danborradarako partehartzaileen izenak batzeari. Aste honetan Udaletxepean izan dira izenak batzen eta astelehenean egingo duten bileran jakinaraziko dituzte entsaio egunak. Entsaioetan izena emateko aukera ere izango da.



Ipuin Lehiaketako sariak banatu dira



Joan zen asteazkenean banatu ziren Euskararen Aholku Batzordeak antolatutako aurtengo ipuin lehiaketako sariak, nagusien mailan ez da partehartzaile izan. Gaztetxoetan, L.H. 3-4 mailan; Ainhoa Gallastegi izan zen txapelduna "Kepa eta Bittor mendian" ipuinarekin, L.H. 5-6 mailan; Lore Gallastegi "Begiak lapurtu dizkirate" ipuinarekin eta azkenik, D. B. H. ko mailan; Nerea Iñurrieta izan zen garaile "Inoiz ahaztuko ez diren lagunak" ipuinarekin. Partehartzaile guztiak jaso zuten oparia.

Silvio Vazen jaietako kartela garaile



Silvio Vaz Kubatarrak egindako kartela izango da aurtengo jaien programako irudia. Silviok herri sarrera "Soralue-Placencia..." dioen sinalearen eta lauburuaren arteko nahasketa bat egin du. Asier Martinez gaztetxoak akzesita jaso zuen.

Argitalpen honen laguntzaile



kutxa
zuri esker

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
Kalebarraren 22. beheko. telf: 943751789

Atletismoa

Azkonak errekorra ondu du berriz



Arrate Azkona plaentxiarrak ezustekoa eman du berriz ere. Joan zen igande euskadiko junior mailako errekorra ondu zuen Anoetan. Arratek 12,90

metroko jauzia egin zuen jauzi hirukoitzean eta errekorra gainditu zuen beste behin. Alturan ere jauzi bikaina egin zuen 1,79 metrokoa hain zuzen. Asteburu honetan Euskadiko txapelketan parte hartuko du Gasteizen eta uztailaren 12 eta 13an eta Espainiako txapelketan parte hartuko du nagusien mailan.

ATLETIK zaleen bazkaria
Uztailaren 5ean urteroko atletikazaleen bazkaria egingo dute Txurrukan. Izena emateko bertara deitu.

Txirrindularitza. Soraluze Saria.

Alfus Tedes-en nagusitasun osoa



Joan zen ekainaren 15ean jokatu zen Soraluze Sariaren VI. ekitaldian Alfus Tedes taldeko txirrindulariek nagusitasun osoz lortu zuten garaipena. Jon del Rio, Iban Urberuaga, Mikel El-

gezabal eta Dabid Perez elkarri eskutik helduta iritsi ziren helmugara. Azken honek lortu zuen mendiko saria eta Euskalduna Garaikurra Mikel Elgezabalendako izan zen.

Judoa

Unai Soraluze 2. Azores Irletan

Unai Soraluze 17 urteko soraluzetar gazteak 2. sailkatzea lortu zuen joan zen asteburuan Azores irletan jokatu zen Sergio Rivas senior mailako txapelketan. Portugal, Espainia eta Cabo Verdeko aurkariak izan zituen eta 2. postua lortu zuen David Carreira portugaldarraren atzetik. Unai Eibarko Kalamua Judo taldean entrenatzen du eta udan baliteke Frantziara joatea.

Futbola

3 Soraluzetar Eibartarrak taldean



Soraluze Futbol Taldearen 25. urteurrena zela-eta antolatutako partiduetan, 3 plaentxiarrek jokatu zuten Eibartarrak taldearen seikoan.

Pala txapelketa

Finala asteburuan eta afaria

Larunbatean, arratsaldeko 17:30etan San Andresen jokatu dute finala emakumeen pala txapelketako bi bikote finalistek. Finalean, Juana Mari Cid eta Ane Ihabarrek, Ireber Iriondo eta Maite Etxeberriaren kontra jokatu dute. Uztailaren 4an afaria egingo dute Txurruka jatetxean.

EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



SAN ANDRES Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

Abel Olaizola

“Jentia korura etortzera animauko neuke”

Aurten Soraluzeke Ama Abesbatzaren X.urteurrena ospatzen da eta ekitaldi benetan ederra emon doskue Plaza Zaharrian. Kontziertua amaittu eta jentia gustora txaloka zeguan bittartian harrapatu dogu Abel, afarira juateko be astirik emon barik. Urtiak daroiaz koruan eta pozez hartu dau urteurren hau; pozez eta ilusiño haundixakin. Dana ondo badoia Soraluzeke Abesbatza Parisen izango dogu laster.

Izen abizenak eta adina.

Abel Olaizola naiz, 44 urte dittut eta produkziñoko arduraduna naiz.

Nora, zeinekin eta zertara?

Pasiada eder bat ematera lagun on batekin Mendigain aldera.

Ze afiziño daukazu?

Kantua eta mendixa.

Gustoko menua

Menestra edar bat, Txurrukan gertatzen daben legatz frijittua eta limoizko helatua.

Zer ez dozu ahaztuko?

Nere amama.

Zer falta jako Soraluzeri?

Kultur etxe bat, abesbatzandako auditorio batekin emanaldixak bertan egin ahal izateko eta herriko beste taldiak be han egoteko.

Zer da egixa borobila?

Nahi dabenak egitten dittuala gauzak. Borondatia modukorik ez dao.

Noiz hasi zinan koruan abesten?

Soldaduskatik bueltatu nintzarian, 22 urte nittuala. Orduan elizako koro parrokialian hasi nintzan, gero Soraluze Abesbatza sortu zan eta handik Ezoizko Ama.

Zelan ikusten dozu Ezoizko Ama Abesbatza?

Ondo ikusten dot baina jentia bihar dogu. Egunetik egunera hobetzen gabiz, baina abesbatza sortu zanian 60 lagun geunden eta oin 35. Jentia korura etortzera animauko neuke.

X. urteurren honetan, ze baloraziño egingo zenduke?

Oso ona, oso politta da. Lanerako goguakin gauza asko egin leizke.



Abel Olaizola

Etorkizunera begira ze asmo daukazu?

Proposamen bat daukagu urtarrilian Parisera juateko beste koru batzuekin jaialdi batera. Euskal Herritik geu

bakarrrik juango gara eta mundu guztiko koruak bilduko dira han. Hau lortzeko herritar danen laguntzia biharko dogu, kostu haundixa eukiko dau eta.

Bertso Begiz

Pil-pileanek harrapatu dau zuriz eta izerditan, Abel da baina Aimar dirudi horrelako gauerditan. Jode abesbatzakin, Parisko kotuakin, ez gelditu inbiritan, lasai laguntza izango da ta zuek-eskatu ordutikan.

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Instalazioak
Berrikuntzak

KIRU
muntaiak

Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Limpiezas

Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea
Tel.: 943 75 25 57
Faxa: 943 75 25 56
20.590 SORALUZE

BALSA JEITSIERA

Deba ibaian

Aurtengo Santiago-Santa Ana Jaixetarako balsa jeitsiera antolatu da. Uztailaren 26an egingo da, 18:00etan, zezenaren aurretik.



Antolatzaileak:



Arauk: Balsa bakoitzean 3 lagun edo gehiagok joan beharko dute.

Laguntza: Parte hartzen duen talde bakoitzak 60 €ko laguntza jasoko du.

Sariak: 150 € balsarik ederrenari 120 € balsarik jendetsuenari 90 € balsarik bizkorrenari

Izena emateko: Pil-pileanera deituta (943751304). Izena emateko azken eguna **UZTAILAREN 11** izango da (hortik aurrera izena ematen dutenak ez dute lehiaketan parte hartzerik izango).

SAN ANDRES JAIXAK 2003



Uztailaren 12xan (zapatuan)
ANJE DUHALDE eta HEGAN

Uztailaren 13an (domekan)
PELOTA, DANTZA eta

SAN ANDRESKO HARRIA txapelketa



Uztailaren 14an (astelehengan)
GARDOKI eta LIZASO ETA EGAÑA





San Andres gozatzeko da!
nahi dozunakin gustora!
guazen ba danok gora!



SORALUCE

Fresaketa teknologia



SORALUCE
GRUPO DANOBAT

SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

Ekainaren 21etik aurrera  Zure kioskoan



Euskaldunok behar dugun **berria**